

SANTIAGO ONAINDIA ETA EUSKAL OLERKIGINTZA

Bilbo, 1996-V-31

Zor handia dio euskal olerkigintzak Aita Santi Onaindiari, zerbitzari leial eta aspergaitza izan zuelako denbora luzean eta garai zailetan.

Aita Santi zutabe sendoetako bat izan du XX. mendeko euskal poesiak: kreaizaile nekaezina, horretarako gauza izan zen arte; eragile eskergarria berak sortu zuen *Olerki* aldizkariaren bidez, batez ere 1959-1969 hamarkadan, *Euzko-gogoa* itzali eta argialetxe berriak euskal literaturaren suztaizaile etorri ziren arte; eta babesle ausarta, eta esku-zabala ere bai, diktadurako urte haietan.

1. AITA SANTIREN POESIGINTZA KREAZIOZKOA

Gutxien aipatzen dugun alorra du hau Aita Santik, gehiago nabarmentzen ditugunez haren antologiak, haren histori lanak eta haren ikaskuntza literarioak, besteak beste. Baina une honetan haren olerkigintzaz ari garenez, bidezko da poesi kreazioak lehenik gogoratzea, oso lan jakingarria eskaini baitzizun karmeldarrak.

Gazterik hasi zen poemagintzan, gerraurreko kultur giroan, *Yakintza* aldizkariaren isurietara, *Olerki-Eguna*-k zekarren bulkoaren barruan eta eraginpean, Lizardi, Lauaxeta eta Orixeren erretenei utsiz. Lehenengo poema 1929koa du eta azkenekoa, berriz, 1988koa, bere *Olerki guztien bilduma* liburuan datorrenez. Guztira 320 olerki ditu hemen jasoak, hauei *Nere baserria (Euskal poema)* gehitu behar zaielarik; poemagintza luzea berau, Orixeren eta S. Mitxelenaen poema nagusiei jarraituz mamitua.

Olerki guztien bilduma deritzan hori neronek aurkeztu nuenez, hor daude aintzinsolasean nik hemen, labur izan beharraren amorez, aipatu ezin ditudanak, baina aipa zitezkeenak ezbaiz gabe.

Gaztetako poemak ditu behar bada lirikaren aldetik jakingarrienak. Aita Santik gutxi bezala aditzera eman zuela zein zen bere poetika, zein ziren bere ideia estetikoak. Eta poetikaz orokorki *Olerki* aldizkarietik banatu bazituen ere bere asmoak, gaztetako poemotan iadanik ageri da poetika ohartua eta landua zela berea; oso landua du estrofagintza, eredu asko eta aukerakoak erabiltzen ditu, eta multzo erritmiko berriagoen musika entzunarazten du. Gero, irudietan legoke bigarren bereiztasuna Onaindiagan, honen estetika nabarmentzen delarik alegorizazio joeran, izadiaren pertsonaltzean, metaforagintza nahiko modernoaren erabilkeran.

Berezi nahiko nituzke hemen gudarien inguru landuriko poemak, autobiografiak damaien bizitasunagatik, poemagintza testimonialak izateagatik: gudarien heriotzari, gudako gertakariei eta Gerkinako erreketari eskainiak ditugu. Poema egiaiki, aitorle ba-

tenak, gudarien kaperau izan zenarenak: hil zirenen zio beragatik, autoreak ere espe-
teak eta desterruak jasan behar izan baizituen.

Kreazio-emaitez bukatzeko, aipatu beharra daukat *Nere baserria euskal poema*, *Euskaldunak* eta *Arantzazu, euskal poema*, bi poemagintza luzeen arabera eta intentzioz landua: gaiak luze, moldeak herrikoi, tradizioaz lotura dutenak, kantatzekoak, ikuspegi historiko kulturaletan oinarrituak eta herria esnatzeko asmotan aurkeztuak. Badakit gaur erraza dela esaten inboluzio bat izan zela poema luzeetara jotze hori. Litekeena da. Baina alarma gorriko turutak jotzen duenean, egin behar izaten da, —ordu zailetan—, suari bizirik eutsiko dion olerki mota, aitormen-olerkia. Aita Santik eta Salvatore Mitxelenak egin izan zuten erakoa. Bagarela eta zerbait garela adierazteko olerkigintza.

2. ITZULPENGINTZA

Sormenezko lanak bezain garrantzizkoak dira literaturaren aldetik Aita Santiren itzulpenak, literatura unibertsaleko poesi ereduak euskaratzen eginiko lanak. Bide hori askok eta askok landu badute ere, eredugarri izan da Onaindiaren jokamoldea, poesi kreakuntza baino azpimarragarriagoa gertatzeraino esango nuke nik.

Aipagarriak benetan poesia klasikoa itzultzen berak emaniko urratsak. Lan erraldoia berea, euskararen alde ari den edozein erakundek eta elkartek eskertzekoa. Aipa ditzagun gutxienez: Homeroren *Odisea*, Esoporen *Ipuñak*, Birjilioren *Idazlanak* osorik; Horatioren *Odak*, Danteren *Jainko-antzerkia*. Lanok zabalkundez, behar bada, ez dira izan headadura handikoak, baina meritu ukaezinezkoa dutenak dira, lan erraldoiak gorago esan dugunez.

Azken mende honetako poeten artean, berriz, tradizio desberdinetako poetak itzultzen ditu, amerikarrak zein europarrak, lehentasun bat dutelarik Gabriela Mistralen olerki-aukera nahiko luzeak eta Rabindranath Tagore-ren sorta oparoak. Lagin urriagoz datoz lau dozena inguru erdal autoreen olerkiak: sona handiko izenak, andana adierazgarria osatzen dutelarik, eta erakusten ere bai, nolako ezagutza eta prasia duen Aita Santik poesia modernoari dagozkionetan.

3. EUSKAL OLERKIGINTZAREN BABESLE

Euzko-gogoa ezkutatu zenetik, nahiko umezurtz geunden euskal olerkariok. Aita Onaindiak honela agertzen du orduko poeten egoera: "Euskal idazle eta olerkari asko dazaguz euren gogoeta asmakoi eta irudikizun txanbelinak nun agertarazi ez dakiela, edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu behar dabenak" ... "*Oleri* deritxon aldizkaria sort-arazi gura neuke". Hara hor bildurik, orduko behar-izanak eta Aita Santiren asmoak.

Suztapan lana egin zuen, eragile lana eta babesle lana ere bai ordu zail haietan. Hemen aipatu beharra dago fraide karmeldar honek gure artean bete zuen langintza eskeretzina. Hona zenbait emaitza.

3.1. Hiru belaunalditako poetak bildu zituen, gerraurrekoak, gerrondokoak eta hirurogeigarren hamarkadan hasitakoak. Hor daude Orixeren azken poemak, Iraizozen lan

klasikoak, Etxaniz eta Gazteluren tentakera berriagoak, Mirande, Aresti eta Gandiagaren poesigintza gaztea eta esperantzazkoa.

Hitz batean, hain interesgarria jotzen den 60. hamarkadako poetika desberdinen bikidetzaz agertzen da. Benetan aipagarria XX. mendeko euskal poesigintza ulertu nahi duenarentzat: hasi Orixeren azken arnasatik eta Mikel Lasaren gazte-emaiztak arte.

3.2. Bestalde, azpimarratuko nuke zer suposatu zuen *Olerti* aldizkariak hizkuntza nagusietako poemak itzultzeko orduan. Aipatua dut Aita Santik alor honetan eginiko lanak eta eman zuen esenplua. Aldizkarian datozen beste lanei atxekiz, lehenengo epe batean, lan ugaria aurkezten zaigu, eta itzultzaile kopuru nahiko zabala, “Otsalar” (Juan San Martin) izan bide delarik poemarik gehien argitara eman zituena. Bigarren epe batean, 1964az geroztik, behar bada nabarmendu beharko litzateke bi itzultzaileen emaitza, bata Jon Beiztegirena eta bestea Sabin Muniategirena.

Santi Onaindiak erakundetze-maila eman zion lan honi, irakasgarri gertatuz, eta hezitzaile ere bai, euskal poeten mundurako. Etenik gabeko lana bultzatu zuen, “jatorrizko agiria” emanez hainbat poesi ereduri gure artean, eta eginkizun bat markatuz, denen beharrean bizi ginen egun haietan.

3.3. Lanerako akuilua eta giro-sortzailea izan zen baita ere. Hor zegoen oroitza-penean gerraurreko olerki-sariketen emaitza eta arrakasta, orduko *Olerti-eguna*-ren inguru gertatua. Aita Santi arduratu zen bulko hori gure artean, 1959-1969 hamarkadan eta gerora ere bai, berbiztu zedin eta garatu. Honen lekuko “Olerki-Sariketak” dauzagu, 1960tik aurrera antolatuak, olerki mugimenduaren bultzagarri.

Gero “Olerti eguna” genuke, sariak banatzeko jarria, “aspaldiko oitura degunez”. Luzaz irauin zuten olerki-ospakizunak ditugu. Bilerak Larreako komentuan egin ohi ziren: meza, abesbatza, akademi ekintza, bazkaria; arratsaldean berriro ikaskuntza-gaiak. Seitan bukaera eta agurra. Askorentzat egun gogoangarria: giroa sortzeko egina, elkarren berri jakiteko erutua. Are eta estimagarriagoa han, garai haietan horrelako bilkurarik egin ez zitekeenez, orduko legeek galerazten zutelako edozein bilgura egitea, baimenik gabe. Biltzea bera zen garrantzizko garai haietan. Eta honetan ahaleginak egin zituen Aita Santik, sua itzali ez zedin poeten artean.

3.4. Bere zerbitzu preziagarrietan, gogoratu bederen bidezko derizkiet Aita Santik paraturiko antologiei. 1) *Milla euskal-olerki eder* liburua arrobi izan da, eredu eta idaztiturri ere bai, euskal olerkien, kantuen eta ikaskuntzen bizitzan. 2) *Jolasketa*, liburu aberatsa bezain sakona eskoletarako eta ikastoletarako egina. 3) Eta *Euskarazko ehun maite-kantu hoberenak*, bai herrikoiak eta bai estilo idatzizkoak, beren gaztelerazko itzulpena daramatelarik. Eskaintza oparoa hemen ere. Eta herri-literaturari gagozkiolarik, aukeraketa fina, tajuzkoa, neurri ederrekoa, gaia ongi ezagutzen duenaren eskaintza eskergarria.

AZKENA

1. Lan ona eta ordu onean egindako olerkigintza Onaindiarena. Poesi laburretan antologia egoki baten zain geratzen da eta literatur ikaskuntzen behar-izanean.

2. Itzulpengintzak miresmena ezezik, beste sendoagoko ikerkuntzak beharko litzuke: sentiberatasuna zeri zion agertzeko, zein eredu bultzatu zituen ikusteko, zer poe-

tika gomendatzen zuen finkatzeko eta nondik-nora joz bideratu nahiko zukeen euskal poesia, behar den bezala gauzatzeko.

3. Bere langintzan gehienik nabarmentzen den alderdia zerbitzuarena da. Inori nondik eta nora zebilen galdetu gabe, inori karnetarik eskatu gabe, edozein zirela idazlearen estetika ikuspegiak, bere ideologi pentsamoldeak, bere poetika jokabideak, denentzat eskaintzen zuen leku. Eta eskatzen zuen baldintza bakarra zen euskal literaturaren alde lana egitea, eta euskara “noranahikoa” (Lizardi) izan zedin ahalegintzea. Hortik aurrera hasten zen S. Onaindiaren zeregina: lan bateragilea, arnas-emailea, bermatzailea eta iraupen luzeko bulkoa.

4. Aita Santik bide zaila aukeratu zuen helburutzat: gerraurreko estetika, tradiziozko ikuspegia eta bizkaieraren hautapena. Denborak bere onera etorri ahalean, beste taldetan kokatu ziren, beste proiektuetan, *Olerti*-ren erubean itzala aurkitu zuten gazteagoak. Hala ere, hor geratu da S. Onaindiaren zantzua, itzala eta eragin ona, euskal poesiarentzat hain garrantzitsua izan zena, hamarkada horretan hain zuzen, hiru belau-naldiri eustarria jarriz eta, batez ere hain denbora zailtan.

5. Gregorio Mujikak *Euskal esnalea*-rekin egin zuen eran, “Aitzol”-ek *Yakintza*-rekin, P. Lafittek *Gure Herriarekin*, eta Y. Zaitegik *Euzko-gogoa*-rekin, halaxe egin zuen Aita Onaindiak *Olerti*-rekin. Gaurko egoera asko aldatu izanak, perspektiba eta ikuspegia zehaztu dizkigu, iritziak pausatu ditzagun. Baina hor geldituko da bihotz handiko Karmeldar baten ondarea, arnasa, laguntza eta tentu bikaina: alor ahantz-ezina euskal literaturan, Santi Onaindia eta euskal olerkigintza. G.B.!

Juan Mari Lekuona